

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

#### **ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/105/EE ZUZENTARAU, 2008ko abenduaren 16koa, ur-politiken arloan ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzeari buruzkoa. Zuzentarau honek Kontseiluaren 82/176/EEE, 83/513/EEE, 84/156/EEE, 84/491/EEE eta 86/280/EEE Zuzentarauak aldatu eta gerora indargabetzen ditu, eta 2000/60/EE Zuzentaraua aldatzen du.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :  
« *Directiva 2008/105/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de diciembre de 2008, relativa a las normas de calidad ambiental en el ámbito de la política de aguas, por la que se modifican y derogan ulteriormente las Directivas 82/176/CEE, 83/513/CEE, 84/156/CEE, 84/491/CEE y 86/280/CEE del Consejo, y por la que se modifica la Directiva 2000/60/CE (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 348/84, 2008/12/24koa).* »

## ZUZENTARAUAK

**EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/105/EE ZUZENTARAUA, 2008ko abenduaren 16koa, ur-politiken arloan ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzeari buruzkoa. Zuzentarau honek Kontseiluaren 82/176/EEE, 83/513/EEE, 84/156/EEE, 84/491/EEE eta 86/280/EEE Zuzentarauak aldatu eta gerora indargabetzen ditu, eta 2000/60/EE Zuzentaria aldatzen du.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute eta, bereziki, haren 175. artikuluan 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup> aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari kontsulta egin diote,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura bete dute <sup>(2)</sup>,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Gainazaleko uren kutsadura kimikoak arriskuan jartzen ditu, bai ingurune urtarra (besteak beste, honako ondorio hauek eragiten ditu: organismo urtarren toxikotasun akutua eta kronikoa; ekosisteman metatzea eta habitaten eta bioaniztasunaren galera), bai gizakion osasuna. Hala bada, ezinbestekoa da kutsaduraren arrazoiak zein diren jakitea, eta ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik ahalik eta eraginkorrena den moduan tratatzea, ahal dela, jatorrian bertan esku hartuz.

(2) Tratatuaren 174. artikuluko 2. paragrafoko bigarren esaldian ezarritakoaren arabera, Erkidegoak ingurumen-arloan aurrera daraman politikak printzipio hauek izango ditu oinarri: zuhertasun-printzipioa; prebentziozko ekintzaren printzipioak; ahal bada, ingurumenaren kontrako erasoak jatorrian bertan zuzentzeko printzipioa; eta, hurren, kutsatzen duenak ordaindu egingo duela dioen printzipioa.

(3) Tratatuaren 174. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, ingurumenari buruzko politika prestatzerakoan, Erkidegoak honako alderdi hauek edukiko ditu kontuan: eskuragarri dauden datu zientifikoak eta teknikoak; ingurumenaren egoera Erkidegoko eskualdeetan; Erkidego osoaren ekonomia- eta gizarte-garapena eta Batasuneko eskualdeen garapen orekatua eta ekintzak egitearen edo ez egitearen ondorioz sor daitezkeen abantailak eta kostuak.

(4) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2002ko uztailaren 22an hartu zuten 1600/2002/EE Erabakian, Ingurumenaren Alorrean Erkidegoko Seigarren Ekintza Programa ezartzekoan <sup>(3)</sup>, xedatutakoaren arabera, ingurumena, osasuna eta bizi-kalitatea Programa horrek ingurumenaren arloan dituen funtsezko lehentasunen artean daude. Halaber, Programa horretan azpimarratu da, behar-beharrezkoa dela araudi espezifikoa ezartzea ur-politiken arloan.

(5) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000. urteko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarian, ur-politiken alorrean Erkidegoko jarduera-esparrua ezartzekoan <sup>(4)</sup>, uraren kutsaduraren aurka borrokatzeko estrategia zehazten da eta kutsadura kontrolatzeko neurri espezifiko berriak eta ingurumenaren kalitateari buruzko arauak eskatzen ditu. Zuzentarau honek, hartara, ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezarri ditu, 2000/60/EE Zuzentarian jasotako xedapen eta helburuekin bat.

(6) 2000/60/EE Zuzentariako 4. artikuluan eta, bereziki, 1. paragrafoko a) idatz-zatian, xedatutakoaren arabera, estatu kideek Zuzentarau horretako 16. artikuluan —1 eta 8. paragrafoetan— xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatu behar dituzte, lehentasunezko substantzietatik eratorritako kutsadura pixkanaka-pixkanaka murriztea eta lehentasunezko substantzia arriskutsuen isuriak eta jarioak etetea edo pixkanaka desagerraraztea helburu.

<sup>1</sup> C 97 EO, 2007-04-28koa, 3. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2007ko maiatzaren 22koa (C 102 E EO, 2008-04-24koa, 90. or.); Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2007ko abenduaren 20koa (C 71 E EO, 2008-03-18koa, 1. or.); Europako Parlamentuaren Jarrera, 2008ko ekainaren 17koa —oraindik ez da Egunkari Ofizialean argitaratu— eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko urriaren 20koa.

<sup>3</sup> L 242 EO, 2002-09-10ekoa, 1. orr.

<sup>4</sup> L 327 EO, 2000-12-22koa, 1. orr.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(7) 2000. urteaz geroztik, 2000/60/EE Zuzentarauko 16. artikuluan xedatutakoari jarraiki, hainbat egintza formalizatu dira Erkidegoaren barruan, lehentasunezko substantzia jakin batzuen isuriak kontrolatzeko neurriak ezartze aldera. Horretaz gain, indarrean dagoen Erkidegoko beste araudi baten bidez ere araututa daude ingurumena babesteko neurri asko. Horrenbestez, kontrol berriak ezarri beharrean, egokiagoa da lehentasuna ematea egun indarrean dauden tresnak aplikatzeari eta berraztertzeari.

(8) 2000/60/EE Zuzentarauko 16. artikuluan iturri puntual eta barreiatuetatik isurtzen diren lehentasunezko substantziak kontrolatzeari buruz xedatzen denari dagokionez, errentagarriagoa eta orekatuagoa dirudi estatu kideek, indarrean dagoen Erkidegoko araudia aplikatzeaz gain, kontrol-neurri egokiak aplikatu ditzatela Zuzentaru horretako 11. artikuluari jarraiki mugape hidrografiko bakoitzean egin beharreko neurrien programaren barruan. Kontrolak, betiere, aipatutako Zuzentarauko 11. artikuluekin bat hartu beharko dira.

(9) Estatu kideek lehentasunezko substantziaren jatorriari eta kutsadura-bideei buruz dituzten datuak eta ezagutzak hobetu behar dituzte, kontrol-modalitate espezifikoak eta eraginkorrak definitze aldera. Estatu kideek, besteak beste, aldiari-aldiari kontrolatu behar dituzte sedimentuak eta biota, kasuan-kasuan dagokiona. Kontrol hori sedimentuetan edo biotan metatzeko joera duten lehentasunezko substantziak epe luzera duten joerari buruzko azterketa fidagarria lortzeko nahikoa datu eskuratzeko bide ematen duen maiztasunaz egin behar dute. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ur-politiken arloko lehentasunezko substantzien zerrenda onartzeko 2001eko azaroaren 29an hartu zuten 2455/2001/EE Erabakiko <sup>(1)</sup> 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontrol-jardueren emaitzak, sedimentuen eta biotaren kontrolarenak barne, jakinarazi egin behar dira, Batzordearen etorkizuneko proposamenetan erabili ahal izateko, betiere, 2000/60/EE Zuzentarauko 16. artikuluko 4 eta 8. paragrafoetan ezarritakoari jarraiki.

(10) 2455/2001/EE Erabakian, Erkidegoko esparruan arautuko diren 33 substantzia edo substantzia-talderen lehendabiziko zerrenda jaso da, lehentasunaren arabera sailkatuta. Lehentasunezko substantzia horien barruan, batzuk lehentasunezko substantzia arriskutsu gisa identifikatu dira. Horiei dagokienez, beraz, estatu kideek beharrezko neurriak aplikatu behar dituzte, emisioak, isuriak eta jarioak eten edo pixkanaka desagerrarazteko. Jatorri naturala duten edo prozesu naturalen bidez sortzen diren substantzietan, ordea, ezinezkoa da iturri potentzial guztien emisioak, isuriak eta jarioak etetea edo pixkanaka desagerraraztea. Substantzia batzuk berraztertu egin dira, eta horiek sailkatu beharra dago. Batzordeak, 2000/60/EE Zuzentarauko 16. artikuluan aurreikusitako egutegiari jarraiki, lehentasunezko substantzien zerrenda berraztertzen jarraitu behar du. Ildo beretik, arautzeko aukera ematen duten substantziei lehentasuna eman beharko die, ur-ingurunean edo haren bidez arriskua eragin dezaketela frogatzen duten irizpideetan oinarrituta. Halaber, alderdi horri buruzko proposamenak aurkeztu behar ditu, egoki irizten duen moduan.

(11) Erkidegoaren mesedetan, eta gainazaleko urak babesteko neurriak modu eraginkorragoan arautze aldera, komeni da, batetik, ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzea Erkidego-esparruan lehentasunezko substantzia gisa sailkatuta dauden kutsatzaileetarako, eta bestetik, estatuei baimena ematea, hala badagokio, nazio-esparruko arauak ezar ditzaten gainerako kutsatzaileetarako, dagozkion Erkidegoko arauak ere aplikatzen badituzte. Hala eta guztiz ere, Kontseiluaren 1986ko ekainaren 12ko 86/280/EEE Zuzentarauaren bidez [76/464/EEE <sup>(2)</sup> Zuzentarauaren I. eranskinean jasotako substantzia jakin batzuen gehieneko balioei eta horien hondakinen kalitateari lotutako helburuei buruzkoa] araututako zortzi kutsatzaile ez ziren sartu lehentasunezko substantzien zerrendan. Substantzia horiek, hain zuzen, estatu kideek arautu beharreko substantzien multzoaren barruan daude, helburua 2015erako egoera kimiko ona edukitzea dela, betiere, 2000/60/EE Zuzentarauko 2. eta 4. artikuluetan xedatutakoari jarraiki. Dena den, ikusi da kutsatzaile horientzat ezarritako arau bateratuak erabilgarriak izan direla. Hartara, horien arauketari eutsi behar zaio Erkidego-esparruan.

(12) Hortaz, ingurumenaren kalitateari lotuta egun indarrean dauden xedapenak ez dira behar bezain zorrotzak, eta horiek ezabatu beharra dago. Hona hemen xedapen horiek: Kontseiluaren 1982ko martxoaren 22ko 82/176/EEE Zuzentaruak, kloruro alkalinoen elektrolisiaren sektoreko merkurio-isuriari gehieneko balioei eta kalitate-helburuei buruzkoa <sup>(3)</sup>; Kontseiluaren 1983ko irailaren 26ko 83/513/EEE Zuzentaruak, kadmio-isuriari gehieneko balioei eta kalitate-helburuei buruzkoa <sup>(4)</sup>; Kontseiluaren 1984ko martxoaren 8ko 84/156/CEE Zuzentaruak, kloruro alkalinoen elektrosiliaren sektoreaz bestelakoetako isuriari gehieneko balioei eta kalitate-helburuei buruzkoa <sup>(5)</sup>; Kontseiluaren 1984ko urriaren 9ko 84/491/EEE Zuzentaruak, hexakloroziklohexano-isuriari gehieneko balioei eta kalitate-helburuei buruzkoa <sup>(6)</sup>, eta 86/280/EEE Zuzentaruak.

<sup>1</sup> L 331 EO, 2001-12-15koa, 1. orr.

<sup>2</sup> L 181 EO, 1986-07-04koa, 16. orr.

<sup>3</sup> L 81 EO, 1982-03-27koa, 29. orr.

<sup>4</sup> L 291 EO, 1983-10-24koa, 1. orr.

<sup>5</sup> L 74 EO, 1984-03-17koa, 49. orr.

<sup>6</sup> L 274 EO, 1983-10-17koa, 11. orr.

(13) Kutsadura kimikoak kalteak eragin ditzake ingurune urtarrean, epe laburrean eta luzean. Horregatik, efektu akutu eta kronikoei buruzko datuak oinarri gisa erabili beharko dira ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzeko. Ingurune urtarrean eta giza osasunaren babes egokia bermatzeko, ezartzen diren ingurumenaren kalitateari buruzko arauak honela adierazi behar dira: batetik, urteko batez bestekoen bidez epe luzerako arriskuaren kontrako babesa emateko moduko mailan, eta, bestetik, epe laburreko arriskuaren kontrako babesa emateko onargarriak diren gehieneko kontzentrazioak zehaztuz.

(14) 2000/60/EE Zuzentarauaren V. eranskineko 1.3.4 atalean ezarritako araei jarraiki, ingurumenaren kalitateari buruzko arauen betetze-maila ebaluatzerakoan, onartutako gehieneko kontzentrazioetan emanak daudenak barne, estatu kideek metodo estatistikoak (pertzentilen kalkulua, kasu) balia ditzakete ezohiko balioek —hau da, batez bestekoarekin alderatuta, muturreko desbideratzea dutenek— eta positibo faltsuek sortutako arazoak konpontzeko, konfiantza- eta zehaztasun-maila onargarria lortzeko. Estatu kideen kontrolen arteko konparagarritasuna bermatzeko, komeni da metodo estatistiko horietarako arau zehatzak finkatzeko prozedura zehaztea. Lan hori, komite baten bidez egingo da.

(15) Substantzia gehienei dagokienez, ingurumenaren kalitateari buruzko Erkidegoko arauak gainazaleko uretan soilik ezarriko dira. Hala ere, hexaklorobenzenoari, hexaklorobutadienoari eta merkurioari dagokienez, ezin da zeharkako efektuen eta intoxikazioaren aurkako babesa bermatu gainazaleko urei buruzko Erkidego-esparruko ingurumenaren kalitateari buruzko arauen bidez soilik. Horregatik, egokia da biotari lotutako Erkidego-esparruko ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ere ezartzea aipatutako hiru substantzia horietarako. Estatu kideek beren kontrol-estrategiaren arabera malgutasuna izan dezaten, gai izan behar dute biotari lotutako ingurumenaren kalitateari buruzko arau horiek kontrolatu eta aplikatzeko, edo bestela, babes-maila bera emango dieten ingurumenaren kalitateari buruzko arau zorrotzagoak aplikatzeko gainazaleko uretan.

(16) Halaber, estatu kideek sedimentuetan edo biotan ingurumenaren kalitateari buruzko arauak nazioan aplikatzeko gai izan behar dute, eta ingurumenaren kalitateari buruzko arau horiek aplikatzeko, Zuzentaru honetan uretarako ezarritako ingurumenaren kalitateari buruzko arauen orde. Arau horiek, hain zuzen, prozedura garden baten bidez ezarri beharko dituzte. Horren ildotik, bada, jakinarazpenak egingo dizkiete Batzordeari eta beste estatu kideei, Erkidego-esparruan uretan aplikatu diren ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ematen duten babesarekin bat datorren babes-maila bermatze aldera. Batzordeak jakinarazpen horien laburpenak izan beharko ditu 2000/60/EE Zuzentarauaren aplikazioari buruz egiten dituen txostenetan. Bestalde, sedimentuak eta biota metatzeko joera nabarmena duten substantzia zehatz batzuk kontrolatu ahal izateko tresna garrantzitsuak dira oraindik. Jarduera antropogenikoaren eta joeren epe luzerako eragina ebaluatze aldera, estatu kideek, 2000/60/EE Zuzentaruako 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, neurriak hartu behar dituzte, biotaren eta sedimentuen egungo kutsadura-mailak modu nabarmenean gaindi ez daitezen lortzeko.

(17) 2000/60/EE Zuzentaruako 13. artikuluan eta VII. eranskineko A ataleko 5. puntuan xedatutakoari jarraiki, Zuzentaru honetako 4. artikuluko 4, 5 eta 6. paragrafoekin bat, ur-masetan aplikatzekoak diren lehentasunezko substantzien gaineko ingurumenaren kalitateari buruzko arauetan egindako salbuespenak arto hidrologikoa kudeatzeko planetan aipatu behar dira, Zuzentaru honetako 4. artikuluko 8 eta 9. paragrafoetan adierazitakoarekin bat. 2000/60/EE Zuzentaruako 4. artikuluan adierazitako betekizunak betetzen badira, salbuespen-baldintzak barne, lehentasunezko substantzien emisioak, isuriak eta jarioak dakartzaten jarduerak egin ahal izango dira, dragatzea eta nabigatzea barne.

(18) Estatu kideek giza kontsumorako diren uren kalitateari buruz Kontseiluak 1998ko azaroaren 3an eman zuen 98/83EE Zuzentaruak<sup>(1)</sup> bete behar dute. Halaber, edateko ura ekoizteko erabiltzen diren gainazaleko ur-masak kudeatu behar dituzte, 2000/60/EE Zuzentaruako 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Horrenbestez, Zuzentaru hau arau zorrotzagoetan xedatutako betebeharrak alde batera utzi gabe aplikatu behar da.

(19) Iturri puntaletako isurien inguruetan, kutsatzaileen kontzentrazioak ur-hondoetako kontzentrazioak baino handiagoak izan ohi dira. Horiek horrela, estatu kideek nahasketa-guneak erabili ahal izango dituzte, gainerako gainazaleko ur-masetan dagozkion ingurumenaren kalitateari buruzko araei eragiten ez dieten neurrian. Nahasketa-guneak mugatuak izango dira: isurketa-puntuaren inguruak soilik hartuko ditu, eta haien hedadurak proportzionatua izan behar du. 2000/60/EE Zuzentaruako 3. artikuluko 4. paragrafoari jarraiki, estatu kideek, hala dagokionean, bermatu behar dute aipatutako Zuzentaruako 4. artikuluan helburuak betetzeari buruz jasotako betekizunak koordinatu egingo direla mugape hidrografiko osoan, mugaz gaindiko entitate hidrologikoetako nahasketa-guneak izendatzeko prozedura barne.

<sup>1</sup> L 330 EO, 1998-12-05ekoa, 32. orr.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(20) 2000/60/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian, eteteari edo pixkanaka desagerrarazteari eta murrizteari buruz ezarri diren helburuen betetze-maila egiaztatu behar da. Halaber, betekizun horiek bete direla ebaluatzeko prozedurak gardena izan behar du, bereziki, giza jardueretik eratorritako isuri, emisio eta jario nabarmenei dagokienez. Horretaz gain, kontuan izan behar da isuriak eteteko edo pixkanaka desagerrarazteko edo murrizteko egutegia inbentario batean oinarrituta soilik ezar daitezkeela. Bestalde, 2000/60/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 4 eta 7 artetako paragrafoak aplikatu diren ebaluatzeko aukera egon beharko da. Era berean, jatorri naturaleko edo prozesu naturaletatik eratorritako substantzien jarioak kuantifikatzeko tresna egokia garatu beharko dute. Izan ere, kontuan izan behar da ezinezkoa dela substantzia horien jarioak guztiz etetea edo pixkanaka desagerraraztea iturri potentzial guztiak oinarri hartuta. Aipatutako betekizun horiek guztiak betetzeko, beraz, estatu kideek emisio, isuri eta jarioen inbentario bat ezarri beharko dute beren lurraldearen barruan kokatuta dagoen mugape hidrografiko edo mugapearen zati bakoitzerako.

(21) Inbentario horiek egin eta uren babesaren arloan dauden beste tresna batzuekiko koherentzia dutela bermatzerakoan lan berberak bi aldiz egin ez daitezkeen, estatu kideek eskuartean duten informazioa erabili beharko dute, 2000/60/EE Zuzentaruaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko urtarrilaren 18ko 166/2006/EE Erregelamenduan <sup>(1)</sup> xedatutakoari jarraiki (Erregelamendua kutsatzaileen emisioen eta transferentzien Europako erregistroa ezartzeari buruzkoa da).

(22) Gainazaleko uren babes homogeneous bermatzea helburu, gainazaleko ur-masak estatu kide batenak baino gehiagorenak badira estatu horiek beren kontrol-operazioak koordinatu behar dituzte eta, hala dagokionean, inbentarioak ere bai.

(23) Dagozkien beharrei hobeto erantzute aldera, estatu kideek erreferentziatzeko epe egokia aukeratu ahal izango dute, urtebetekoa, inbentarioko oinarritzko sarrerak neurtu ahal izateko. Dena den, kontuan hartu behar da plagiziden aplikaziotik eratorritako jarioak urte batetik bestera alda daitezkeela, besteak beste, baldintza klimatiko desberdinen ondorioz jazo daitezkeen aplikazio-tasak direla medio. Ondorioz, aukera eman behar zaie estatu kideei hiru urteko erreferentziatzeko epea ezar dezaten 1991ko uztailaren 15eko Kontseiluaren 91/414/EEE Zuzentaruaren, produktu fitosanitarioen merkaturatzeari buruzkoan <sup>(2)</sup>, araututako substantzietarako.

(24) Inbentarioa ahalik eta hobekien erabil dadin lortzeko, egokia da epemuga bat ezartzea, emisioak, isuriak eta jarioak 2000/60/EE Zuzentarauko 4. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian ezarritako helburuak betetzera bideratuta daudela egiaztatu dezan Batzordeak. Dena den Zuzentaru horretako 4. artikuluko 4 eta 5. paragrafoetan xedatutakoa bete beharko da.

(25) Estatu kideek emisioen, isurien eta jarioen (sedimentuetan metatutako kutsadurak eragindako jarioak barne) inbentarioak ezartzeko erabili dituzten metodoak harmonizatzen laguntzeko orientabide teknikoak ezarri behar dira.

(26) Zenbait estatuk beren nazio-jurisdikziotik kanpo kokatuta dauden iturriek sortutako kutsaduraren kalteak pairatzen dituzte. Hori dela eta, komeni da argitzea estatu kideak ez liekeela kontra egingo Zuzentaru honetatik eratorritako betekizunei, baldin eta ingurumenaren kalitateari buruzko arauak gaudituko balitu mugaz gaindiko kutsadura hori dela medio, baina, betiere, delako estatuak baldintza jakin batzuk errespetatu baditu eta 2000/60/CE Zuzentaruaren dagozkion xedapenak modu egokian aprobetxatu baditu.

(27) Estatu kideek 2000/60/EE Zuzentarauko 15. artikuluan xedatutakoari jarraiki eman dituzten txostenak oinarri, Batzordeak indarrean dauden egintzak aldatzearen eta Erkidego-esparruan neurri osagarri eta espezifikoko —emisioen kontrolak, kasu— ezartzearen egokitasuna aztertu behar du eta, hala dagokionean, egoki irizten dituen proposamenak formulatu. Batzordeak azterketa horren ondorioak jakinarazi behar dizkie Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, 2000/60/EE Zuzentarauko 18. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako txostenean. 2000/60/EE Zuzentarauko 10. artikuluan xedatutakoaren harira, emisioak kontrolatzeko proposamenak aurkezten dituzte, Batzordeak kontuan izan beharko ditu isurien kontrolaren arloan indarrean dauden betekizunak —besteak beste, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz 2008ko urtarrilaren 15ean eman zuten 2008/1/EE Zuzentaruaren <sup>(3)</sup> jasotakoak— eta kutsadura murriztearen arloan izan diren aurrerapen teknologiko berrienak.

(28) Iraunkorrak, biometagarriak eta toxikoak diren substantziak identifikatzeko irizpideak, bai eta antzeko arrisku-maila duten bestelako substantziak batzuk identifikatzeko irizpideak ere —oso iraunkorrak eta oso

<sup>1</sup> L 33 EO, 2006-02-04koa, 1. orr.

<sup>2</sup> L 230 EO, 1991-08-19koa, 1. orr.

<sup>3</sup> L 24 EO, 2008-01-29koa, 8. orr.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

biometagarriak direnak, bereziki—, 2000/60/EE Zuzentarauan aurreikusitakoaren arabera, honako xedapen hauetan ezarri dira: 1993ko uztailaren 20ko Batzordearen 93/67/EEE Zuzentarauari [Kontseiluaren 67/548/EEE Zuzentarauan jakinarazitako substantziek gizakiengan eta ingurumenean duten arriskua ebaluatzeko irizpideak ezartzekoa <sup>(1)</sup>] lagundu eta arriskua ebaluatu ahal izateko orientabide teknikoa ematen duen dokumentuan; 1998ko otsailaren 16an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak bioziden merkaturatzeari buruz eman zuten 98/8/EE Zuzentarauan <sup>(2)</sup> eta, azkenik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 18an eman zuten 1907/2006/EE Erregelamenduan <sup>(3)</sup>. Azken agiri hori, hain zuzen, substantzia kimikoak erregistratzeari, ebaluatzeari eta baimentzeari eta substantzia horiei aplikatu beharreko murrizketei buruzkoa da, eta haren bidez Produktu Kimikoen Europako Agentzia sortu da. Erkidegoko legedian koherentzia bermatze aldera, irizpide horiek dira 2455/2001/EE Erabakiari jarraiki berraztertu behar diren substantzietan aplikatu behar diren bakarrak. Ondorioz, 2000/60/EE Zuzentaruako X. eranskina ordeztu egin behar da.

(29) 2000/60/EE Zuzentaruako IX. eranskinen zerrendatutako zuzentarueta ezarritako betebeharrak 2008/1/EE eta 2000/60/EE Zuzentarueta jaso dira dagoeneko. Beraz, ingurumenaren kalitateari buruzko arauak berraztertu edo horiei eutsiz gero, babes-maila bera, gutxienez, bermatuta geratuko da. Gainazaleko uren kutsadura kimikoaren gaian ikuspegi koherentea bermatzea eta arlo horretan indarrean dagoen Erkidegoko araudia sinplifikatzea eta zehaztea helburu, komeni da, 2000/60/EE Zuzentarauan ezarritakoari jarraiki, honako zuzentarau hauek indargabetzea: 82/176/EEE, 83/513/EEE, 84/156/EEE, 84/491/EEE eta 86/280/EEE Zuzentaruak. Indargabetzeak 2012ko abenduaren 22tik aurrera izango du eragina.

(30) 2000/60/EE Zuzentarauan jasotako gomendioak kontuan hartu dira; bereziki, toxikotasunari, ekotoxikotasunari eta ingurumenari buruzko zientzia-komiteak emandakoak.

(31) «Lege hobeak egitea» <sup>(4)</sup> deritzon erakunde arteko akordioaren 34. puntuan adierazitakoari jarraiki, estatu kideak bultzatu egiten dira, beren onerako zein Erkidegoaren onerako, nork bere taulak egin ditzan, horien bidez, ahal den neurrian, Zuzentarau honen eta transposizio-neurrien artean dauden loturak adierazteko eta, ondoren, argitara emateko.

(32) Kontuan hartuta Zuzentarau honen helburua —alegia, gainazaleko uren egoera kimiko ona erdieste, ingurumenaren kalitateari buruzko arauak aplikatuz lehentasunezko substantzietan eta beste kutsatzaile batzuetan— estatu kideek ezin dutela bere kasa behar bezala lortu, eta Erkidego osoko gainazaleko uretan babes-maila berari eutsi behar zaiola, ikusi da helburua hobeto lor daitekeela Erkidegoan. Horrenbestez, Erkidegoak horretarako neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan jasotako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren indarrez, Zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

(33) Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakian <sup>(5)</sup>, 1999ko ekainaren 28koan, araututakoari jarraiki onartuko dira Zuzentarau hau betetzeko behar diren neurriak. Erabaki horretan arautzen da zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak betearazteko.

(34) Bereziki, Zuzentarau honetako I. eranskineko B zatiko 3. puntua aldatzeko eman behar zaizkio eskumenak Batzordeari. Izaera orokorreko neurria denez eta Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatu eta funtsezkoak ez diren elementuez osatzea duenez xede, 1999/468/EE Zuzentaruako 5 bis artikuluan aurreikusita dauden kontrolpeko arautze-prozeduren arabera hartu behar da.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

### *1. artikulua*

#### **Xedea**

Zuzentarau honetan ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezarri dira lehentasunezko substantzietan eta beste kutsatzaile batzuetan, gainazaleko uren egoera kimiko ona erdieste aldera, betiere, 2000/60/EE Zuzentaruako 16. artikuluan xedatutakoari eta Zuzentarau horretako 4. artikuluan jasotako xedapen eta helburuei jarraiki.

<sup>1</sup> L 227 EO, 1993-09-08koa, 9. orr.

<sup>2</sup> L 123 EO, 1998-04-24koa, 1. orr.

<sup>3</sup> L 396 EO, 2006-12-30ekoa, 1. orr. Hemen zuzendutako bertsioa: L 136 EO, 2007-05-29koa, 3. orr.

<sup>4</sup> C 321 EO, 2007-12-31koa, 1. orr.

<sup>5</sup> L 184 EO, 1999-07-17koa, 23. orr.

## 2. artikulua

### **Definizioak**

Zuzentarau honetan, 2000/60/EE Zuzentarauko 2. artikuluan ezarritako definizioak aplikatuko dira.

## 3. artikulua

### **Ingurumenaren kalitateari buruzko arauak**

1. Zuzentarau honetako 1. artikuluan eta 2000/60/EE Zuzentarauko 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, estatu kideek Zuzentarau honetako I. eranskineko A zatian ezarritako ingurumenaren kalitateari buruzko arauak aplikatuko dituzte gainazaleko ur-masetan. Ingurumenaren kalitateari buruzko arauak I. eranskineko B zatian ezarritako betekizunekin bat aplikatuko dituzte Estatu kideek gainazaleko ur-masetan.

2. Gainazaleko uren kategoria jakin batzuetan, estatu kideek I. eranskineko A zatian ezarritako arauen ordeztan, ingurumenaren kalitateari buruzko arauak aplikatu ahal izango dituzte sedimentuetan edo biotan. Aukera hori hautatzen duten estatu kideek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) ingurumenaren kalitateari buruzko arauen barruan 20 µg/kg aplikatzea merkurioan eta haren osagaietan edo 10 µg/kg hexaklorobenzenoan edo 55 µg/kg hexaklorobutadienoan. Ingurumenaren kalitateari buruzko arau horiek arrain, molusku, krustazeo eta bestelako biotaren ehunei aplikatuko zaizkie (pisu hezea kontuan hartuta), eta egokiena den adierazlea aukeratu beharko da;

b) substantzia espezifikotan, a) idatz-zatian aurreikusitakoez bestelako ingurumenaren kalitateari buruzko arauak ezartzea eta aplikatzea sedimentuetan edo biotan. Ingurumenaren kalitateari buruzko arau horiek I. eranskineko A zatian uretarako ezarri diren arauak ematen duten babes-maila bera bermatu behar dute gutxienez;

c) a) eta b) letretan adierazitako substantzietan dagokienez, sedimentuetan edo biotan egin beharreko kontrolen maiztasuna zehaztu behar da. Edonola ere, jarraipena urtean behin egin beharko da behintzat, salbu eta ezagutza teknikoek edo adituen irizpenak bestelako maiztasun bat eskatzen badute, eta

d) 2000/60/EE Zuzentarauko 21. artikuluan aipatutako Komitearen bidez, Batzordeari eta gainerako estatu kideei honako alderdi hauek jakinaraztea: b) idatz-zatian xedatutako ingurumenaren kalitateari buruzko arauak zer substantziatarako ezarri diren (substantzien izena aipatu beharko da); zer arrazoitara eta funtsek bultzatu duten neurri hori hartuz; ezarritako ingurumenaren kalitateari buruzko arau alternatiboa —ingurumenaren kalitateari buruzko arau alternatiboa lortzeko baliatu diren datuak eta metodologia barne—; gainazaleko uren zer kategoriatan aplikatuko diren eta aurreikusitako kontrolen maiztasuna (maiztasun horren justifikazioa ere eman beharko da).

Batzordeak, 2000/60/EE Zuzentarauko 18. artikuluan xedatutakoaren harira argitaratzen dituen txostenetan, aurreko paragrafoko d) idatz-zatian eta I. eranskineko A zatiko 9. oharrean aipatutako jakinarazpenen laburpena sartu beharko du.

